Código de validación/*Balidazio kodea*
1G71373T3J0U6R1R036X

**ASUNTO/*GAIA***

| |
|---|
| Propuesta de resolución sobre la moción conjunta presentada por EH Bildu, Se Puede Ermua Ahal Da e Irabazi relativa a la eliminación de simbología franquista. \| *Sinbologia frankista ezabatzearen inguruan EH Bildu, Se Puede Ermua Ahal Da eta Irabazi udal taldeek batera aurkeztu duten mozioari buruzko ebazpen proposamena.* |

| | | |
|---|---|---|
| Comisión Informativa de Asuntos Generales-Pleno 23-01-2018 | | |

*EH Bildu, Se Puede Ermua Ahal Da eta Irabazi udal talde politikoek sinbologia frankista ezabatzeari buruzko MOZIO hau aurkezten diote Udalbatzarrari eztabaidatzeko eta, bidezkoa balitz, onesteko.*

*ZIOEN AZALPENA*

*Egun Ermuan badira oraindik Francoren garaian eraikitako etxebizitza-blokeetan sinbolo frankistak mantentzen dituztenak (garai hartako Etxebizitza Ministerioak jarritako plakak), nahiz eta gure herrira demokrazia iritsi, hiritarrek behin eta berriz eskatu eta "Oroimen Historikoaren Legea" izenez ezagutzen den abenduaren 26ko 57/2007 Legea ere hor dagoen. Aipatutako legeak sinbolo horiek kentzeko behar morala eta legezko obligazioa are gehiago erakusten du.*

*Sinbolo faxistadun (uztarria eta geziak) plaka horiek mantentzea mespretxu handia da gure elkarbizitzaren oinarri diren balio demokratikoentzat, eta abenduaren 26ko 52/2007 Legean agindutakoa ez betetzea gainera, bere 15.1 artikuluan horiek kendu beharra*

Los grupos políticos municipales EH Bildu, Se Puede Ermua Ahal Da e Irabazi presentan, para su discusión y aprobación, si procede, la MOCIÓN relativa a la eliminación de simbología franquista, de acuerdo a la siguiente,

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Actualmente en Ermua, todavía existen bloques de viviendas construidos durante el franquismo que mantienen en sus fachadas símbolos franquistas (las placas colocadas en su momento por el entonces Ministerio de la Vivienda), a pesar de la llegada de la democracia a nuestro país, de las reiteradas peticiones de la ciudadanía y de la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, conocida como "Ley ,de la Memoria Histórica", lo que ha puesto aún más de manifiesto la necesidad.moral y la obligación legal de retirar dichos símbolos .

Mantener esas placas con simbología fascista (el yugo y las flechas) es un claro desprecio a los valores democráticos en los que hoy se basa nuestra convivencia, además de un incumplimiento evidente de la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, que en su artículo 15.1, insta a su ret irada:

*ezartze baitu:*

*"Administrazio publikoek, beren eskumenak betez, altxamendu militarraren, Gerra Zibifaren eta Diktaduraren errepresioaren inguruko armarriak, intsigniak, plakak eta, modu pertsonalean edo kolektiboan, garai hura goraipatzen duten beste objektu edo aipamen guztiak kentzeko berariazko neurriak hartuko dituzte. Neurri horien artean, diru-laguntza edo laguntza publikoak kentzea sartu ahal izango da"*

"Las Administraciones públicas, en el ejercicio de sus competencias, tomarán las medidas oportunas para la retirada de escudos, insignias, placas y otros objetos o menciones conmemorativas de·exalta ció, n personal o colectiva, de la sublevación militar, de la Guerra Civil y de la represión de la Dictadura. Entre estas medidas podrá incluirse la retirada de subvenciones o ayudas públicas.

*Egokia iruditzen zaigu, beraz, Udalari legea bete dezala eskatzea, arrasto frankista horiek behin betiko desagertu daitezen eta oroimen historikoa, Errepublikaren gobernu demokratikoa defendatu zutenen duintasuna eta frankismoaren 40 urteetan· errepresaliatuak izan ziren pert sonena, hein batean behintzat, berrezartzeko.*

Nos parece oportuno solicitar al Ayuntamiento que cumpla la Ley, con el objetivo de conseguir la desaparición definitiva de estas secuelas franquistas y restablecer así en parte la memoria histórica, la dignidad de los defendieron el gobierno democrático de la República y de las personas represaliadas durante los 40 años de franquismo.

*Horregatik guztiagatik aurkezten dugu ondorengo MOZIOA:*

Por todo ello presentamos la siguiente, MOCIÓN:

*1 .- Ermuko Udaleko Udalbatzarrak gaitzetsi egiten du 1936ko uztailaren 18an II Errepublikako gobernu legitimoaren kontra egindako altxamendu militarra.*

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Ermua condena el alzamiento militar del 18 de julio de 1936 contra el gobierno legítimo de la II República.

*2. Ermuko Udalak, "Oroimen Historikoaren Legea"k ezarritakoa betez, berehala ekingo dio herrian oraindik dagoen sinbologia frankista guztia kentzeari .*

2.- El Ayuntamiento de Ermua iniciará de inmediato, en cumplimiento de la "Ley de la Memoria Histórica", la eliminación de toda simbología franquista que aún persista en la villa.